| Onuraduna<br>Entidad Beneficiaria | Emandako Kopurua<br>Importe concedido | Aurrekontuko programa<br>Programa presupuestario |
|---|---|---|
| [redacted] | | |
| SUMINISTRO Y CALIBRACION | | |
| [redacted] | | |
| THE PAPER & OFFICE EQUIPMENT | | |
| [redacted] | | |

II EKIMENA: EZINDUTA ETA GIZARTE BAZTERKETAKO EGOERAN DAUDEN PERTSONAK

**EZINDUTA ETA GIZARTE BAZTERKETAKO EGOERAN DAUDEN PERTSONEN KOLEKTIBOAK LANERATZEA**

| Onuraduna | Emandako Kopurua | Aurrekontuko programa |
|---|---|---|
| [redacted] | | |
| ASOCIACIÓN BENEFICO-ASISTENCIAL | | |
| [redacted] | | |
| ASOCIACIÓN CLARETIANA PARA EL | | |
| [redacted] | | |
| ASOCIACIÓN DE AYUDA A EXCLUIDOS | | |
| [redacted] | | |
| FEDERACIÓN COORDINADORA DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD | | |
| [redacted] | | |
| FEDERACIÓN VASCA | | |
| [redacted] | | |

(I-179)

●

## Nekazaritza Saila

**534/2010 FORU AGINDUA urtarrilaren 28koa, Bizkaiko Lurralde Historikoan 2010eko denboraldian ibaietako uretan arrantzan egin ahal izateko aldiei eta debekualdiei buruzkoa.**

Ibai Arrantzari buruzko 1942ko otsailaren 20ko Legean, eta berau betearazteko onetsi zen 1943ko apirilaren 6ko Araudian eta xedapen gehigarrietan ezarritakoarekin bat etorrita, beharrezkotzat jotzen da, batetik, 2010eko denboraldirako arrain-ustiapeneko espezieak arrantzatzeko epealdiak araupetzea, haien biztanleriak babestu eta hobetzeko eta, bestetik, Bizkaiko Lurralde Historikoan babes nahikorik edo kide nahikorik ez duten bestelakoen debekualdiak finkatzeko.

Honenbestez, eta Arrantzako Lurralde Kontseiluari entzun eta gero (2009ko abenduaren 15ean batzartu zen), eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauko 36. eta 64. artikuluek -Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Jardutze-Erakundeen arteko Harremanetarako 1983ko azaroaren 25eko Legeko 7.b)3. artikuluari dagokionez- emandako eginkizunekin bat etorrita, hauxe,

| Onuraduna<br>Entidad Beneficiaria | Emandako Kopurua<br>Importe concedido | Aurrekontuko programa<br>Programa presupuestario |
|---|---|---|
| TRABAJOS Y COMPONENTES | | |
| [redacted] | | |
| VICTORIA BRUSCHI-IGNACIO | | |
| [redacted] | | |

INICIATIVA II: PARA LAS PERSONAS DISCAPACITADAS Y EN SITUACIÓN DE EXCLUSIÓN SOCIAL

**INSERCIÓN LABORAL DE LOS COLECTIVOS DE PERSONAS DISCAPACITADAS Y EN SITUACIÓN DE EXCLUSIÓN SOCIAL**

| Entidad Beneficiaria | Importe concedido | Programa presupuestario |
|---|---|---|
| [redacted] | | |
| ASOCIACIÓN BENEFICO-ASISTENCIAL | | |
| [redacted] | | |
| ASOCIACIÓN CLARETIANA PARA EL | | |
| [redacted] | | |
| ASOCIACIÓN DE AYUDA A EXCLUIDOS | | |
| [redacted] | | |
| FEDERACIÓN COORDINADORA DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD | | |
| [redacted] | | |
| FEDERACIÓN VASCA | | |
| [redacted] | | |

(I-179)

●

## Departamento de Agricultura

**ORDEN FORAL 534/2010, de 28 de enero, sobre periodos hábiles y vedas de pesca continental en el Territorio Histórico de Bizkaia para 2010.**

De conformidad con lo establecido en la Ley de Pesca Fluvial, de 20 de febrero de 1942, y en el Reglamento aprobado para su ejecución de 6 de abril de 1943 y disposiciones complementarias, se considera necesario regular para la temporada de 2010 los periodos hábiles para la pesca de especies con aprovechamiento piscícola, para la protección y mejora de sus poblaciones, y vedas de pesca de aquellas otras insuficientemente protegidas o representadas en el Territorio Histórico de Bizkaia.

En consecuencia, oído el Consejo Territorial de Pesca, reunido al efecto el 15 de diciembre de 2009, y en virtud de las funciones atribuidas sobre la materia en los artículos 39 y 64 de la Norma Foral 3/87, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia en relación con lo establecido en el artículo 7.b) 3 de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, de 25 de noviembre de 1983,

XEDATU DUT:

**1. artikulua.—**[redacted]

Bizkaiko Lurralde Historikoko ibaietako uretan, 2010eko arrantza-denboraldian zehar, honako zerrenda honetan ageri diren espezieak harrapatu ahal izango dira:

— Amuarrain arrunta (Salmo trutta fario).

— Amuarrain ortzadarra (Oncorhynchus mykiss).

— Perka amerikarra (Micropterus salmoides).

— Barboa (Barbus graellsi).

— Karpa (Cyprinus carpio).

— Zamoa (Carassius auratus).

— Loina edo madrila (Chondrostoma toxostoma).

— Tenka (Tinca tinca).

— Lupina arrunta (Dicentrarchus labrax).

— Hondoetako korrokoi, lasun edo korkoina (Chelon labrosus).

— Platuxa (Platichtys flesus).

Harrapatzen diren tenka (Tinca tinca) espezieko buruak harrapatzen diren tokian bertan hil beharko dira, neurria edozein dutela ere ; beste hainbeste egingo da ibaietako (ez urtegietan) uretan harrapatzen diren zamoen kasuan ere.

**2. artikulua.—**[redacted]

2.1. Arrantza-epealdiak.

Denboraldi honetan araubide askeko uretan izokin kideak arrantzan harrapatu ahal izateko epealdia, oro har, martxoaren 21etik uztailaren 31ra bitartekoa, biak barne, izango da:

Araubide bereziko uretarako, arrantzan egiteko epealdiak I. eta II. eranskinetan ageri dira.

Hala ere, denboraldia zabalik egongo da irailaren 30era arte araubide askeko alde hauetan:

— Alonsotegi: Artibaiko urtegia.

— Arrankudiaga: Zolloko urtegia.

— Barakaldo: Oiola eta Castañoseko urtegiak.

— Ermua: Aixolako urtegia.

— Galdakao: Aranzelai eta Lekubasoko urtegiak.

— Galdames: La Pesquera putzua.

— Gueñes: La Cuadrako urtegia.

— Sopuerta: Vinagre eta Jarralta putzuak.

Ziprinidoen arrantza urte osoan egin ahal izango da, horretarako izendatutako tarteetan.

Arrantza-eskoletarako eta esparru intentsiboetarako arrantzaldia, hurrenez hurren, foru agindu honetako 21. artikuluan eta IV. eranskinean ezarritakoa izango da.

2.2. Arrantza-egunak

2.2.1. Tarte askeak. Orokorrean, arrantzan egin daitekeen aldiko astearteak jai-egunak ez badira, ez da utziko tarte askeetan arrantzan egiten.

2.2.2. Tarte mugatuak: I. eta II. eranskinetan zehazten da zein diren -arrantzan egiteko epealdi barruan- atseden egunak Bizkaiko Lurralde Historikoko tarte mugatu guztietarako.

2.3. Arrantza-orduak.

Tarte askeetan, arrantzan egiteko ordutegia, eguzkia irteten denetik (egunsentia) eguzkia sartu (iluntzea) artekoa izango da, hau da, eguzkiak dirauen bitartekoa.

Orokorrean, arrantza-esparruetan, ohikoetan nahiz heriotzarik gabekoetan, goizeko 8etatik eguzkia sartu artekoa izango da, apirilaren 30era arte. Maiatzaren 1etik denboraldiaren amaiera arte, goizeko 8etatik iluntzeko 21:30era artekoa izango da.

Atxuriaga/La Aceña eta Aulesti II. esparruetan, denboraldi osoko ordutegia, 9etatik 16etara eta 8etatik 19etara izango da, hurrenez hurren.

Arrantza-eskoletarako eta esparru intentsiboetarako arrantzaldia, hurrenez hurren, foru agindu honetako 21. artikuluan eta IV. eranskinean ezarritakoa izango da.

DISPONGO:

**Artículo 1.—**[redacted]

Podrán ser objeto de pesca en aguas continentales del Territorio Histórico de Bizkaia para la presente temporada de pesca 2010, las especies que a continuación se relacionan:

— Trucha común (Salmo trutta fario).

— Trucha arco-iris (Oncorhynchus mykiss).

— Black-Bass (Micropterus salmoides).

— Barbo (Barbus graellsi).

— Carpa (Cyprinus carpio).

— Carpín (Carassius auratus).

— Loina o Madrilla (Chondrostoma toxostoma).

— Tenca (Tinca tinca).

— Lubina (Dicentrarchus labrax).

— Muble, Lisa o Corcón (Chelon labrosus).

— Platija (Platichtys flesus).

Las capturas de ejemplares de la especie Tenca (Tinca tinca) deberán ser sacrificadas en el lugar de captura independientemente de su talla, así como las de Carpín que se produzcan en cursos fluviales, no en cambio en embalses.

**Artículo 2.—**[redacted]

2.1. periodos hábiles.

Con carácter general, y para la pesca de salmónidos en aguas libres durante la presente temporada, el periodo hábil será el comprendido entre el 21 marzo y el 31 de julio, ambos inclusive.

Para las zonas de régimen especial, los periodos hábiles se encuentran señalados en el Anexo I y Anexo II.

Sin embargo, se mantendrá abierta la temporada hasta el 30 de septiembre en las siguientes zonas libres:

— Alonsotegi: Embalse de Artiba.

— Arrankudiaga: Embalse de Zollo.

— Barakaldo: Embalses de Oiola y Castaños.

— Ermua: Embalse Aixola.

— Galdakao: Embalses Aranzelai y Lekubaso.

— Galdames: Pozo de La Pesquera.

— Güeñes: Embalse de La Cuadra.

— Sopuerta: Pozos Vinagre y Jarralta.

La pesca de ciprínidos podrá realizarse durante todo el año en aquellos tramos declarados como tales.

El periodo hábil en las escuelas de pesca y en los cotos intensivos se regirá por lo dispuesto en el artículo 21 y en el anexo IV respectivamente de esta Orden Foral

2.2. Días hábiles

2.2.1. Tramos libres. Con carácter general en estos tramos no se permitirá la pesca los martes que no sean festivos del período hábil.

2.2.2. Tramos acotados. En los Anexos I y II se especifican los días de descanso, dentro del período hábil, en cada uno de los distintos acotados existentes en el Territorio Histórico de Bizkaia.

2.3. Horas hábiles.

En los tramos libres, el horario hábil será el comprendido entre el orto (amanecer) y el ocaso (anochecer), concretamente de sol a sol.

Con carácter general, en los cotos, tanto ordinarios como de pesca sin muerte, será el comprendido entre las 8 horas y el ocaso hasta el 30 de abril. Desde el 1 de mayo hasta el final de la temporada, será de 8 de la mañana hasta las 21 horas y 30 minutos.

En los acotados de Atxuriaga/La Aceña y Aulesti II, el horario durante toda la temporada será de 9 a 16 horas y de 8 a 19 horas respectivamente.

El horario hábil en las escuelas de pesca y en los cotos intensivos se regirá por lo dispuesto en el artículo 21 y en el anexo IV respectivamente de esta Orden Foral.

**3. artikulua.—**[redacted]

3.1. Amuarrain arrunt (Salmo trutta fario) eta amuarrain ortzadar (Oncorhynchus mykiss) espezietatik arrantzale bakoitzak eguneko gehienez harrapa dezakeen kopurua honako hau da:

— Tarte askeak: 4 ale.

— Tarte mugatuak:

- Atxuriaga/La Aceña esparrua: ale 1.
- Balmasedako esparrua: 2 ale.
- Undurragako esparrua: 5 ale. Horietatik 2, gehienez, amuarrain arrunt espeziekoak izango dira.
- Udaberriko gainerako tarte mugatuak: 4 ale.
- Arrantza-esparru intentsiboak: ikus IV. eranskina.

3.2. Ziprinidoei eta beste batzuei dagokienez, ez dago mugarik.

3.3. Heriotzarik gabeko arrantza-tarteetan, uretara itzuliko dira harrapatutako amuarrain arrunt eta ortzadar espezieetako ale guztiak, ahalik eta kalterik gutxien eginda.

3.4. Heriotzarik gabeko arrantzan jarduten ez denean, harrapatzeko neurri egokiak dituen amuarrain bat harrapatzen bada, ezin izango da berriro uretara itzuli.

**4. artikulua.—**[redacted]

Jarraian adierazitako luzera baino handiagoa duten pieza guztiak uretara bidaliko dira harrapatu bezain laster:

— Amuarrain arrunta (Salmo trutta fario) eta amuarrain ortzadarra (Oncorhynchus mykiss):

- Tarte askeak: 22 cm.
- Tarte mugatuak: 22 cm.

— Perka beltz amerikarra edo black-bass: 8 cm

— Barboa (Barbus graellsi) 18 cm.

— Karpa (Cyprinus carpio): 18 cm.

— Zamoa (Carassius auratus): neurririk gabe.

— Loina edo madrila (Chondrostoma toxostoma): 10 cm.

— Tenka (Tinca tinca): neurririk gabe.

— Lupina arrunta (Dicentrarchus labrax): 20 cm.

— Hondoetako korrokoi, lasun edo korkoina (Chelon labrosus): 25 cm.

— Platuxa (Platichtys flesus) 14 cm.

Arrainen luzera buruaren aurrealdetik hegatz-punta edo buztan zabalduaren atzealdeko erdiraino neurtuko da.

**5. artikulua.—**[redacted]

5.1. Baimendutako arrantza-tresna bakarra arrantza-kanabera da.

Arrantzale bakoitzak bina kanabera erabili ahal izango ditu; eta eskura eduki beharko ditu.

5.2. «Ateratzeko sarea» edo «salabardoa» bezalako tresna lagungarriak erabiltzeko baimena dago. Hala ere, hori ez eragozpen izango azken tresna hori erabiltzeko 8.5 artikuluan oro har ezarritako debekua ez aplikatzeko. Tresna horiek kanaberaz egindako harrapaketak uretatik ateratzeko lagungarri gisa erabiliko dira.

**6. artikulua.—**[redacted]

6.1. Orokorrean debekatu egiten da:

a) Amuzki gisa arrain biziak nahiz hilak erabiltzea, Undurragako urtegian izan ezik; urtegi horretan arrantza-mota hori baimentzen da ahalik eta neurri handiko arrain gehien, batez ere amuarrainak, akabatzeko; gutxienez 8 cm-ko neurriak dituzten arrain biziak edo hilak erabili ahal izango dira, beti ere arrain horiek aipatutako urtegian bizi diren bertako espezietakoak badira eta horien arrantza baimenduta badago.

b) Arrantzan egin aurretik edo egin bitartean uretara beitak botatzea. Hori urtegietan eta administrazio-baimenarekin egiten bada, ez da debekatuta egongo.

**Artículo 3.—**[redacted]

3.1. El número máximo de ejemplares de las especies Trucha común (Salmo trutta fario) y Trucha arco-iris (Oncorhynchus mykiss) que en su conjunto se pueden capturar por pescador y día son:

— Tramos libres: 4 ejemplares.

— Tramos acotados:

- Coto Atxuriaga/La Aceña: 1 ejemplar.
- Coto de Balmaseda: 2 ejemplares.
- Coto Undurraga: 5 ejemplares, de los cuales, serán como máximo, 2 de la especie trucha común.
- Resto de acotados de primavera: 4 ejemplares.
- Cotos intensivos: Ver anexo IV.

3.2. En el caso de los ciprínidos y otros, sin límite de capturas.

3.3. En los tramos de pesca sin muerte deberán ser restituidas a las aguas, con el menor daño posible, todas las especies capturadas tanto de trucha común como arco-iris.

3.4. Cuando no se practique la pesca sin muerte, una vez que se haya capturado una trucha de tamaño pescable, no podrá ser devuelta de nuevo a las aguas.

**Artículo 4.—**[redacted]

Se restituirán a las aguas, inmediatamente de extraerse de las mismas, todas las piezas cuya longitud sea inferior a las que seguidamente se indican:

— Trucha común (Salmo trutta fario) y Trucha arco-iris (Oncorhynchus mykiss):

- Tramos libres: 22 cm.
- Tramos acotados: 22 cm.

— Perca negra americana o black-bass: 8 cm.

— Barbo (Barbus graellsi): 18 cm.

— Carpa (Cyprinus carpio): 18 cm.

— Carpín (Carassius auratus): sin talla.

— Loina o Madrilla (Chondrostroma toxostoma): 10 cm.

— Tenca (Tinca tinca): sin talla.

— Lubina (Dicentrarchus labrax): 20 cm.

— Muble, Lisa o Corcón (Chelon labrosus): 25 cm.

— Platija (Platichtys flesus): 14 cm.

La longitud de un pez se medirá desde el extremo anterior de la cabeza, hasta el punto medio de la parte posterior de la aleta caudal o cola extendida.

**Artículo 5.—**[redacted]

5.1. El único arte de pesca autorizado es la caña de pescar.

El número de cañas admitido por pescador/a es de dos, que deberán estar al alcance de la mano.

5.2. Se autoriza el empleo de elementos auxiliares como la «sacadera», «redeña» o «salabardo» (sin perjuicio de la prohibición que para la utilización de este último, con carácter general, se establece en el artículo 8.5). Estos elementos se emplearán exclusivamente como ayuda para extraer de las aguas las capturas efectuadas con cañas.

**Artículo 6.—**[redacted]

6.1. Con carácter general se prohíbe:

a) La utilización como cebo de los peces vivos o muertos excepto en el Embalse de Undurraga en el que al objeto de eliminar el mayor número posible de peces de gran tamaño, fundamentalmente truchas, se permitirá la pesca con pez vivo o muerto de 8 cm de dimensión mínima, debiendo pertenecer estos peces a alguna de las especies autóctonas presentes en el referido embalse y cuya pesca está autorizada.

b) Cebar las aguas antes o durante la pesca, salvo en embalses y con autorización administrativa.

6.2. Amuzki natural modura, bertako ur-faunakoenak ez diren intsektuen edota bestelako ornogabeen edozein arrain-arrautza, larba, pupa, ninfa eta imago erabiltzea.

6.3. Debekatu egiten da, beren beregi, «asticot» deritzan harra nahiz antzerakoak edota gazta, okela eta halakoekin eginiko masa bilduak amuzki gisa erabiltzea.

6.4. «Heriotzarik gabekotzat» hartutako arrantza-tarteetan baimendutako amuzki edo beita bakarra edozein motatako euli artifiziala izango da. Ziprinidoen arrantzan erabili ohi diren amu baimenduak erabil daitezke, Lertutxeko urtegian izan ezik, hori ziprinido eta beste batzuentzako tartea baita. Edonola ere, amuak ez du inolako arpoirik izango.

6.5. Debekatu egiten da, amuzki gisa lurreko harra edo zizarea erabiltzen denean, 3 zenbakikoa baino neurri txikiagoko amuak erabiltzea, amuarrain txikiei kalterik egitea ekiditeko.

6.6. Aulesti II eta Atxuriaga/La Aceña esparruetan, neurri handiko amuarrain ortzadarrek hariak apurtu ez ditzaten, gutxienez 5 kilogramoko pisuari eutsiko dioten 24 zenbakiko hariak erabili beharko dira.

6.7. Aulesti I, Balmaseda, Sopuerta eta Turtzioz esparruetan, debekatuta dago beita naturalak erabiltzea denboraldi osoan. Balmasedako esparruan arrain artifiziala baino ezingo da erabili, eta koilaratxoak amuzki bakarra eduki ahal izango du.

6.8. Zebra muskuilua (Dreissena polymorpha) deritzan kanpoko muskuilua zabaltzeko arrisku handia dagoenez, eta horiek nahigabe Bizkaiko ibaietako uretan zabaltzeko edota ustekabez sartzeko arriskua aldentzeko, debekatu egiten da arrantzarako espezie hori amuzki modura erabiltzea.

**7. artikulua.—**[redacted]

Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren urriaren 7ko 216/97 Dekretuaren arabera («E.H.A.A.», 1997ko urriaren 23koa, 203. zk.) EAEko ibaietan arrantzan egiteko behar diren agiriak hauek dira:

— Euskal Autonomia Erkidegoak arrantzarako emandako lizentzia.

— Dagokion tasa ordaindu dela egiaztatzen duen agiria.

— NANa edo pasaportea. Eskatzailea 16 urtetik beherakoa bada, nortasuna egiaztatzen duen edozein agiri.

— Dagokion baimena, arrantza esparruetan egiten denean. Baimen hori norberarena eta besterenganaezina izango dela.

Agiri horiek une oro izan beharko ditu arrantzaleak arrantza egiten duenean eta erakutsi egin beharko ditu ibai-zainek edo horretarako kontratatutako zaintzaileek eskatzen dizkiotenean.

**8. artikulua.—**[redacted]

Debeku hauek ezarri dira:

8.1. Debekatuta dago arraba-aldeetan sartzea apirilaren 30era arte (egun hori barne).

8.2. Baimendutako tamainakoa baino txikiagokoa den arrain bat harrapatuta amua ezin bazaio kendu kalte larririk egin gabe, haria ebaki eta askatu egingo da.

8.3. Arrantza errazteko edo zailtzeko, harrizko, zurezko edo beste material batez egindako oztopoak nahiz langak jartzea, edo ibilgua edo emaria aldatzea.

8.4. Elektrokutatu edo paralizatu dezaketen tresnak, argi artifizialak, lehergaiak eta gai pozoitsuak, paralisia sortu dezaketenak, lasaigarriak, erakargarriak nahiz nardagarriak erabiltzea.

8.5. Hauek erabiltzea: erpak, kakoak, hiruhortzekoak, karakoteak, kanpinak, fitorak, arpoiak, xederak, baheak, butroiak, benakak, banarretak, tretzak, salabardoak, xingak, xanpelaketak eta antzerako tresnak..

8.6. Zurrun eta iraunkorrak ez diren flotazio-tresnak erabiltzea, hala nola, egur, almadia, oholtza eta antzekoak.

8.7. Arrantzan eskuz egitea eta arrainen babesleku diren harriak astintzea.

6.2. Como cebos naturales se prohíbe la utilización de todo tipo de huevas, larvas, pupas, ninfas e imágos de insectos u otros invertebrados que no pertenezcan a la fauna acuícola local.

6.3. Se prohíbe expresamente la utilización como cebo del gusano llamado «asticot» o semejantes y las masas aglutinadas de queso, carne o similares.

6.4. En los tramos declarados como «sin muerte», el único cebo autorizado será la mosca artificial en todas sus modalidades. Excepto en el embalse de Lertutxe, que está declarado como tramo de ciprínidos y otros y se podrán utilizar los cebos autorizados que se emplean en la pesca de ciprínidos. En cualquier caso, el anzuelo no portará ninguna clase de arpón.

6.5. Se prohíbe la utilización de anzuelos con un tamaño inferior al número 3, cuando se utilice como cebo la gusana o lombriz de tierra, para evitar daños a las truchas pequeñas.

6.6. En los Cotos de Aulesti II y Atxuriaga/La Aceña al objeto de evitar roturas de la línea por los ejemplares de trucha arco Iris de gran tamaño, se deberá disponer de una línea, de al menos, del número 24 que soporte pesos de 5 kilogramos.

6.7. En los Cotos de Aulesti I, Balmaseda, Sopuerta, y Trucios-Turtzioz se prohíbe el cebo natural durante toda la temporada. En el coto de Balmaseda no se podrá utilizar la rapala o pez artificial y la cucharilla sólo podrá portar un anzuelo.

6.8. Debido al grave riesgo de expansión del molusco alóctono denominado Mejillón cebra (Dreissena polymorpha), y con el fin de evitar su propagación e introducción fortuita en las aguas de los cauces de los ríos de Bizkaia, se prohíbe la utilización como cebo de esta especie para la pesca.

**Artículo 7.—**[redacted]

De acuerdo al Decreto 216/97 de 7 de octubre, del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco («B.O.P.V.» número 203 de fecha 23 de octubre de 1997), los documentos necesarios para poder ejercitar la pesca fluvial en el País Vasco son:

— Licencia Autonómica de Pesca del País Vasco.

— Justificante del pago anual de la tasa correspondiente.

— D.N.I. o pasaporte, y en su caso, si es menor de 16 años, cualquier documento que acredite su personalidad.

— En el caso de pesca en cotos la autorización correspondiente siendo ésta personal e intransferible.

Dicha documentación deberá portarse en todo momento por el pescador en el ejercicio de la pesca y ser mostrada a requerimiento de la guardería o del personal de vigilancia contratado al efecto.

**Artículo 8.—**[redacted]

Se establecen las siguientes prohibiciones:

8.1. Queda prohibida la entrada en el agua a las zonas de freza hasta el 30 de abril inclusive.

8.2. Cuando se haya capturado un pez inferior al tamaño autorizado y la extracción del anzuelo sea imposible sin dañarlo gravemente, se cortará la línea y se liberará.

8.3. Cualquier procedimiento que implique la instalación de obstáculos o barreras de piedra, madera u otro material o la alteración de cauces o caudales, para facilitar o no la pesca.

8.4. Utilizar aparatos electrocutantes y paralizantes, fuentes luminosas artificiales, explosivos y sustancias venenosas, paralizantes, tranquilizantes, atrayentes o repelentes.

8.5. Emplear las garras, garfios, tridentes, gamos, grampines, fitoras, arpones, garlitos, cribas, butrones, esparaveles, remangas, palangres, salabardos, cordelillos, sedales durmientes y artes similares.

8.6. Emplear aparatos de flotación tales como haces de leños, balsas, tarimas, etc., que no sean de hechura rígida y permanente.

8.7. Pescar a mano y golpear las piedras que sirvan de refugio a los peces.

8.8. Su-armak, aire konprimatuzkoak edo bestelako gasezkoak, edota uztaiak, baleztak zein antzerako tresnak erabiliz arrantzan egitea.

8.9. Uren emaria gutxitu, ubideak aldatu edota uretako landareak hondatzea.

8.10. Ibaietako uretan edozein arrain espezie sartzea edo askatzea, horretarako Nekazaritza Sailak eman beharreko baimenik gabe.

**9. artikulua.—**[redacted]

Bizkaiko Lurralde Historikoan arrantza-esparrutzat, foru agindu honetako I. II. eta IV. eranskinetan ageri diren tarteak joko dira.

**10. artikulua.—**[redacted]

10.1. Ibaietako uretan urte osoan, goizetik gauera, arrantzatu ahal izango dira kanaberaz ziprinidoak eta bestelako arrain batzuk. Ibai horiek hauek dira:

- — Errekatxoko urtegia.
- — Lertutxeko urtegia (Unibertsitateko urtegia) Leioan. Toki horretan heriotzarik gabeko arrantza bakarrik egin daiteke 6.4. artikuluan ezarritako eran.
- — Zugaztietako Ostión putzua.
- — Arratia ibaia: Igorreko udal mugarteko «Bacaladera Española» enpresaren ondoko zubitik Ibaizabal ibaiarekin bat egiten duen lekuraino.
- — Artibai ibaia: Andonegiko uharkatik ibai-ahoraino.
- — Butroe edo Plentzia ibaia: «Haizene» errotako uharkatik ibai-ahoraino.
- — Cadagua ibaia: Sodupeko zubitik ibai-ahoraino.
- — Herrerias ibaia: lurraldeko mugatik Cadaguarekin bat egiten duen lekuraino.
- — Ibaizabal ibaia: Elorrioko hirigunetik Arandiako uharkaraino, Petralandako uharkatik Eubako zubiraino eta Astepeko araztegitik Nerbioi ibaiarekin bat egiten duen lekuraino.
- — Nerbioi ibaia: Aretan Lurraldera barneratzen den tokitik ibai-ahoraino, beti ere «Talleres Miravallles-Ibatro» deritzan uharkaren eta Carburos enpresaren ondoko uharkaren artean dagoen tartean eta Arrigorriagako Arrantza-Eskolako tartena, udalerri horretako kiroldegiaren ondoan dagoena, izan ezik.
- — Mayor ibaia: N-634 errepideko San Juan zubitik ibai-ahoraino.
- — Oka ibaia: Muxikako zubitik ibai-ahoraino.

10.2. Jaiegunak ez diren astearteetan ezingo da arrantzan egin modalitate horretan.

10.3. Tarte horietan amuarrainak harrapatzea foru agindu honek xedatzen duenari loturik dago.

10.4. Orokorrean ezin izango dira lutxoa (Esox lucius) eta eguzki-arraina edo eguzki-perka (Lepomis gibbosus) deritzana harrapatu. Nahigabe halakoak harrapatzen badira, desagerrarazi egingo dira. Ondoren, tamainaak eta harrapatu direneko lekua jakinaraziko zaizkio ibai-zainari, edo hori ezin denan, Ehiza eta Ibaietako Arrantza Atalari.

**11. artikulua.—Ibaiko karramarroa.**

11.1. Karramarro arrunta (Austrapotamobius pallipes) harrapatzeko debekuak indarrean dirau Bizkaiko Lurralde Historiko osoan, ez delako oraindik «Aphanomices astaci» onddoak sortutako «Aphanomicosis» gaixotasuna gainditu.

11.2. Bizkaiko Lurralde Historikoan Pazifikoko karramarroari buruz egin diren azterlanak eta iragandako denboraldietako esperientzia kontuan hartuz, Pazifikoko karramarroaren (Pacifastacus leniusculus) aprobetxamendua Nekazaritza Sailaren Foru Agindu bidez araupetuko da.

8.8. Pescar con armas de fuego, de aire comprimido u otros gases, así como con arcos, ballestas o artes similares.

8.9. Reducir el caudal de las aguas, alterar sus cauces o destruir la vegetación acuática.

8.10. La introducción o suelta de cualquier especie acuícola en las masas de agua continental, sin contar con la debida autorización del Departamento de Agricultura.

**Artículo 9.—**[redacted]

Están declarados Cotos de Pesca en el Territorio Histórico de Bizkaia los tramos de los ríos que aparecen en el Anexo I, II, y IV de esta Orden Foral.

**Artículo 10.—**[redacted]

10.1. Se autoriza la pesca de ciprínidos y otros con caña durante todo el año de sol a sol en aquellas masas de agua continentales declaradas como tales y que son las que figuran a continuación:

- — Embalse de El Regato.
- — Embalse de Lertutxe (Embalse de la Universidad) en Leioa. En este escenario sólo se podrá practicar la pesca sin muerte en los términos establecidos en el artículo 6.4.
- — Pozo Ostión en La Arboleda.
- — Río Arratia: Desde el puente de Bacaladera Española, en el término municipal de Igorre, hasta su desembocadura en el Ibaizabal.
- — Río Artibai: Desde la presa Andonegui hasta su desembocadura.
- — Río Butrón o Plentzia: Desde la presa del molino «Haizene» hasta su desembocadura.
- — Río Cadagua: Desde el puente de Sodupe a su desembocadura.
- — Río Herrerías: Desde el límite del Territorio hasta su desembocadura en el Cadagua.
- — Río Ibaizabal: «Desde el casco urbano de Elorrio hasta la presa de Arandía, desde la presa de Petralanda hasta el puente de Euba y desde la depuradora de Astepe hasta su desembocadura en el río Nervión».
- — Río Nervión: Desde su entrada en el Territorio en Areta hasta su desembocadura, exceptuando el tramo comprendido entre la Presa de Talleres Miravalles-Ibatro y la presa de Carburos y el tramo que comprende la escuela de pesca de Arrigorriaga situada junto al polideportivo de dicho municipio.
- — Río Mayor: Desde el puente de la carretera N 634, puente San Juan, hasta su desembocadura.
- — Río Oka: Desde el puente de Muxika hasta su desembocadura.

10.2. Los martes no festivos serán día inhábil para esta modalidad de pesca.

10.3. La captura de truchas en estos tramos de pesca estará dispuesto a lo que dicta la presente Orden Foral.

10.4. No se permite la pesca del lucio (Exos lucios) y del Pez sol o perca sol (Lepomis gibbosus) con carácter general. En el caso de producirse capturas accidentales deberán eliminarse y comunicar el tamaño y lugar de las mismas a la guardería, y si ello no fuera posible, a la Sección de Caza y Pesca Continental.

**Artículo 11.—**[redacted]

11.1. Permanece prohibida la pesca del Cangrejo común (Austrapotamobius pallipes), en el Territorio Histórico de Bizkaia al no haber sido superada la enfermedad de la «Aphanomycosis» producida por el hongo Aphanomyces astaci.

11.2. El aprovechamiento del cangrejo señal (Pacifastacus leniusculus), a la vista de los estudios realizados sobre el cangrejo en el Territorio Histórico de Bizkaia y de la experiencia de las pasadas temporadas, se regulará mediante Orden Foral del Departamento de Agricultura.

**12. artikulua.—**[redacted]

12.1. Heriotzarik gabeko arrantza-tarteetan -esparruetan nahiz ustiapen arruntekoetan- arrantzatzen diren amuarrainak, harrapatu bezain laster itzuli beharko dira ibaira, ahalik eta konturik handienaz jokatuz, 3.3. artikuluan adierazten denez.

12.2. Foru agindu honetako II. eranskinean ageri diren ibaiesparruak heriotzarik gabeko tartetzat joko dira. Esparru horietan arrantzan egiteko epealdia -ekainaren 1etik uztailaren 31ra bitartekoaamaitu ondoren, heriotzarik gabeko arrantza esparru arruntetan egin ahal izango da, Aulesti II.ean eta Atxuriaga/La Aceñan izan ezik; horretarako beharrezkoa izango da aurretiaz aditzera ematea baimena eskuratzerakoan, inguruabar hori aipatutako baimenean «heriotzarik gabeko arrantza» zigilua ezarriz adierazita gera dadin.

**13. artikulua.—**[redacted]

13.1. Arrantza mota guztiak debekatuta daude foru agindu honen III. eranskineko zerrendan ageri diren tarteetan.

13.2. Era berean, arrantza debekatuta dago ureztatzeko kanaletan eta zentral elektrikoetarako edo errotetarako anteparetan.

13.3. Ezin izango da arrantzan egin Urkiola eta Gorbeiako parke naturaletako mugen barruko ibaietan, muga horiek, hurrenez hurren, abenduaren 29ko 275/1989 eta ekainaren 28ko 228/1994 dekretuen bidez zehaztu ziren.

13.4. Dike eta presetan nahiz halakoetan jarritako pasabide edo eskaileratan 50 metrotik beherako distantzian arrantzan egitea. Salbuespen hau ez zaie ezartzen 10. artikuluan ziprinidoen aldeei edota halakotzat izendatutako beste batzuei.

**14. artikulua.—**[redacted]

Arrantza intentsiboko esparruak, arrantzan egiteko epealdia ez den garaian kirol arrantza egiteko sortu dira; halako lekuetan arrantzarako izaten den arrainen aberastasuna (amuarrain ortzadarra) arrainkumeak askatuz lortzen da. Denboraldi honetan, hala ere, mantendu egingo da arrantza intentsiboko esparrua Cadagua ibaian (Oreña izenez ezagutzen da). Horretan arrantzan egiteko epealdia apirilaren 1etik uztailaren 31ra artekoa izango da.

Ondoko esparru intentsibo hauek ezarri dira udazkenerako: Atxuriaga/La Aceña, Cadagua, Ibaizabal eta Nerbioi.

Arrantza-esparru horien araubidea debekualdiei buruzko foru agindu honetako IV. eranskinean zehazten da.

**15. artikulua.—**[redacted]

15.1. Debekatuta dago Bizkaiko Lurralde Historikoko ureetan egindako harrapaketen bidez lortutako amuarrain arruntak merkaturatzea.

Amuarrain arrunten merkataritza-trafikoa legezko duten beste erkidego batzuetatik ekarritako aleak Bizkaian merkaturatu ahal izateko, aleon sanitateari eta jatorriari buruzko ziurtagiri egokiak eduki beharko dira.

15.2. Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantzu Sailburuaren 1990eko irailaren 25eko Aginduaren bidez («E.H.A.A.»n, 1999ko urriaren 3ko 199. zenbakian argitaratua) debekatzen da edozein espezietako ibai karramarro biziak Euskal Autonomia Erkidego osoan merkaturatzea, bai eta harrapatutako karramarroak merkatuan salgai jartzea ere.

**16. artikulua.—**[redacted]

2011rako baimenak, arrantza-esparruetan arrantzan egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Ehiza eta Ibaietako Arrantza Atalean eskatuko dira 2010eko azaroaren 2tik abenduaren 30era bitartean. 2011ko urtarrilaren hirugarren astelehenean eguerdiko ordu batean (13,00etan) egingo den zozketa bidez emango dira.

Esparruetan -arruntetan, intentsiboetan nahiz heriotzarik gabekoetan- arrantzan egiteko baimena lortzeko behar-beharrezkoa izango da aurreko arrantzaldian aipaturiko esparruetan ibaietako arrantzaren arautegia edo funtzionamendurako arau bereziak urratzeren ondorioz zigortua ez izatea.

**Artículo 12.—**[redacted]

12.1. En los tramos de pesca sin muerte, tanto acotados como de aprovechamiento común, las truchas que se pesquen deberán ser devueltas al agua inmediatamente después de ser capturadas, con la menor manipulación posible, tal y como se indica en el Artículo 3.3.

12.2. Se declaran Cotos de Pesca sin muerte los tramos de ríos que aparecen en el Anexo II de esta Orden Foral. Finalizado el periodo hábil de pesca en estos acotados, desde el 1 de junio al 31 de julio, la pesca sin muerte se podrá continuar practicando en los Cotos ordinarios, excepto en el Aulesti II y Atxuriaga/La Aceña, siendo necesario manifestarlo al obtener el permiso correspondiente, al objeto de que se pueda indicar esta circunstancia en dicho permiso con un sello de «pesca sin muerte».

**Artículo 13.—**[redacted]

13.1. Queda prohibida la práctica de todo tipo de pesca de cualquier especie en los tramos vedados que se relacionan en el Anexo III de esta Orden Foral.

13.2. Asimismo, se prohíbe la pesca en los canales de riego y en los de alimentación de las centrales eléctricas y molinos.

13.3. No se permite la pesca en ninguno de los ríos incluidos dentro de los límites de los Parques Naturales de Urkiola y Gorbeia, expresados en los Decretos 275/1.989, de 29 de diciembre y 228/1994, de 28 de junio, respectivamente.

13.4. Pescar a una distancia inferior a 50 metros en los diques y presas así como en los pasos o escalas instalados en estas. Esta excepción no afecta a las zonas de ciprínidos y otros declaradas como tales en el artículo 10.

**Artículo 14.—**[redacted]

Los Cotos intensivos tienen como finalidad practicar la pesca deportiva en época diferente a los periodos hábiles, y en ellos la riqueza piscícola objeto de pesca (trucha arco-iris) es generada por repoblación. Esta temporada, sin embargo, se continúa con el coto intensivo en el río Cadagua, conocido como Oreña, siendo el periodo hábil el comprendido entre el 1 de abril y el 31 de julio.

Se establecen los siguientes cotos intensivos de otoño: Atxuriaga/La Aceña, Cadagua, Ibaizabal y Nervión.

En el Anexo IV de esta Orden Foral de Vedas se regula el régimen de funcionamiento de estos acotados.

**Artículo 15.—**[redacted]

15.1. Se prohibe la comercialización de la trucha común procedente de capturas efectuadas en aguas de este Territorio Histórico de Bizkaia.

La comercialización en Bizkaia de trucha común procedente de otras Comunidades en las que sea legal su tráfico mercantil irá acompañada de sus correspondientes certificados de origen y sanidad.

15.2. Asimismo, y según Orden de 25 de septiembre de 1990 del Consejero de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco («B.O.P.V.» número 199, de 3 de octubre de 1.990), se prohibe la comercialización en vivo del cangrejo de río de cualquier especie en la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como la comercialización de los cangrejos capturados.

**Artículo 16.—**[redacted]

Los permisos de pesca en Cotos para el año 2011 se solicitarán desde el 2 de noviembre al 30 de diciembre de 2010 en las dependencias de la Sección de Caza y Pesca Continental del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia, otorgándose mediante sorteo que se celebrará el 3er. lunes de enero del año 2011 a las 13 horas.

Será condición necesaria para obtener permisos para pescar en cotos —ordinarios, intensivos y sin muerte— no haber sido sancionado/a en la temporada anterior por infringir en los cotos sus normas de funcionamiento o la normativa en pesca continental.

**17. artikulua.—**[redacted]

Nekazaritza Sailak Bizkaiko Lurralde Historikoko arrain-espezien kudeaketa hobetzeko egiten dituen azterlanak egunean izateko, datu-banku bat sortu da arrainei buruzko denboraldi bakoitzeko informazioa jaso eta prozesatzeko.

Informazio horrek arrantza-jarduera hobetzea eragingo duela kontuan hartuta, Bizkaiko Lurralde Historikoko arrantza-esparruetan arrantzan egiteko baimenen bat izan duten zaletuek, baimena erabili ostean, dagozkien harrapaketa-agiriak bidali beharko dituzte Nekazaritza Sailera 2010eko irailaren 15a baino lehenago, arrainik harrapatu ez bada ere edo baimenik erabili ez bada ere. Balmasedako esparrurako baimena dutenek ekainaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dituzte agiri horiek. Esparru horretan amuarrainen populazioari buruzko azterlana egiten ari denez, harrapatzen diren amuarrainetatik tatuajea dutenen berri eman beharko da, harrapatzeko gutxieneko tamaina dutenena zein txikiagoak izanik uretara itzuli behar izan direnena ere.

Edonola ere, harrapaketa-agiria aurkeztu izana jasota geratu beharko da. Nekazaritza Sailera bidaltzeaz gain, eskatutako informazioa 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako lekuetan ere aurkeztu ahal izango da.

2010eko abenduaren bigarren hamabostaldian, harrapaketa-agiria aurkeztu ez duten arrantzaleen zerrenda argitaratuko du Nekazaritza Sailak –berdin dio baimena erabili duten edo ez-, hamabost eguneko epean egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten. Prozedura hori Nekazaritza Saileko Mendi eta Natur Guneen zuzendari nagusiaren ebazpen bidez ebatziko da.

Betebehar hori ez betetzeak hurrengo denboraldian baimen gehiago ez ematea ekarriko du.

Bestalde, Nekazaritza Sailak Bizkaiko Lurralde Historikoko ibaiuretan egiten duen bertako arrain-populazioen jarraipenaren barruan, itsasotik ekarritako 36 cm-tik gorako luzera duten amuarrain arruntaren ale batzuk markatu ditu Lea eta Mayor edo Barbadun ibaietan, egin-eginean ere, gantz-hegatsean ebaki bat egin eta mikrotxip bat jarri zaie. Hori dela eta, deskribatutako ezaugarriak dituen alerik harrapatzen duten arrantzaleek ibai-zaintzaileei horren berri eman beharko diete edo, halakorik egin ezin badute, Ehiza eta Ibaietako Arrantza Atalari idatziz jakinaraziko diote. Edozelan ere, harrapaketa-agirian aipatutako gorabehera berariaz adierazi behar da harrapaketa esparru batean izan denean.

Halaber, arrazoi beragatik eta goian ezarritako eran, Aguera ibaian harrapatzen diren gantz-hegatsik gabeko amuarrain arrunten harrapaketen berri eman beharko da.

**18. artikulua.—**[redacted]

Klima, biologia edota bestelako edozein arrazoi dela bide ibaietako faunak izan ditzakeen kalteak aurreikusteko, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak beretzat gordetzen du foru agindu honen bidez araupetutako edozein alderdi edota normalizatzeko egokitzat jo ditzan bestelakoak aldatzeko nahiz garatzeko ahalmena.

**19. artikulua.—**[redacted]

Horrelako uretan arrantzan egiteko epealdiari eta harrapaketa kopuru, tamaina, amu, eta abarrei dagokienean, arrantza-esparruei buruzko agindu murriztaileenak xedatzen duenari jarraituko zaio.

**20. artikulua.—**[redacted]

Debekatuta dago izokinaren arrantza Bizkaiko Lurralde Historikoko ibai guztietan.

**21. artikulua.—**[redacted]

Arrantza-eskolak legez eratutako elkarte batek kudeatu behar ditu, eta Nekazaritza Sailak gaiari buruz ezarritako arautegia bete beharko dute.

**Artículo 17.—**[redacted]

Al objeto de mantener actualizados los estudios realizados por el Departamento de Agricultura para mejorar la gestión de las especies piscícolas en el Territorio Histórico de Bizkaia, se ha creado un banco de datos para recibir y procesar la información piscícola de cada temporada.

Teniendo en cuenta que dicha información supondrá una mejora de la actividad piscícola, aquellos aficionados que hayan disfrutado de algún permiso en los acotados de pesca del Territorio Histórico de Bizkaia deberán, una vez disfrutados los mismos, la remisión al Departamento de Agricultura de los respectivos partes de capturas, aunque éstas hubieran sido nulas o no hubieran sido disfrutados, antes del 15 de septiembre de 2010. Por lo que respecta al coto de Balmaseda, su entrega será con anterioridad al 30 de junio. En este acotado teniendo en cuenta que se está realizando un estudio de la población de truchas se deberán indicar los ejemplares de truchas capturados que se encuentren marcados con un tatuaje, tanto las que tienen la talla mínima pescable como las que presentan una talla inferior y que deben ser devueltas al río.

En cualquiera de los casos, se deberá dejar constancia de la entrega del parte de capturas. Además de su remisión al Departamento de Agricultura, la información requerida podrá presentarse también en los demás lugares previstos en el artículo 38.4 de la ley 30/1992.

En la segunda quincena de diciembre de 2010, el Departamento de Agricultura publicará un listado donde figuren aquellos pescadores que no hayan realizado la entrega del parte de capturas, independientemente de no haber disfrutado del mismo, al objeto de que en el plazo de quince días efectúen las alegaciones oportunas. El procedimiento se resolverá mediante una Resolución del Director General de Montes y Espacios Naturales del Departamento de Agricultura.

El incumplimiento de esta obligación dará lugar a la no expedición de nuevos permisos durante la temporada siguiente.

Por otro lado, el Departamento de Agricultura dentro del seguimiento de las poblaciones piscícolas de los cursos fluviales del Territorio Histórico de Bizkaia, ha procedido al marcaje en los ríos Lea y Mayor o Barbadun de varios ejemplares de trucha común de longitud superior a 36 cm procedentes del mar, consistiendo el mismo en el corte de la aleta adiposa y en la colocación de un microchip. Por ello, aquellos pescadores que realicen alguna captura de ejemplares con las características descritas deberán ponerlo en comunicación de la Guardería o en su defecto, por escrito, a la Sección de Caza y Pesca Continental, sin perjuicio de cumplimentar el parte de capturas con mención expresa de esa circunstancia si se trata de un acotado.

Asimismo, por la misma motivación y en los mismos términos, se deberá notificar las capturas de trucha común carentes de aleta adiposa que se capturen en el río Aguera.

**Artículo 18.—**[redacted]

A fin de prevenir los daños que pudieran ocasionarse a la fauna piscícola por circunstancias climáticas, biológicas o cualesquiera otras, el Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia se reserva la facultad de modificar o desarrollar cualquier aspecto de los regulados por esta Orden Foral y aquellos otros que se consideren oportuno normalizar.

**Artículo 19.—**[redacted]

Por lo que respecta a la pesca en estas aguas tanto el periodo hábil, como el número de capturas, tamaños, cebos, etc. se estará a lo que disponga la Orden de Vedas más restrictiva.

**Artículo 20.—**[redacted]

Queda prohibida la pesca del salmón en todos los ríos del Territorio Histórico de Bizkaia.

**Artículo 21.—**[redacted]

Las Escuelas de Pesca deberán estar gestionadas por una Sociedad legalmente constituida y cumplir la normativa al respecto establecida por el Departamento de Agricultura.

